

1927tik, kontsul izan zen hainbat herrialdetan, hala nola Birmanian, Sri Lankan, Singapurren eta Espainian. 1943an Txilera itzuli zen, eta senatari izendatu zuten 1945ean. Ordea, gatazka gogorrak izan zituen Gabriel Gonzalez Videlaren gobernuarekin, eta erbestera egin zuen 1949an. 1952an itzuli zen. Hil artean izan zen Alderdi Komunistaren Batzorde Nagusiko kide, eta, izatez, lehendakari gaitzeko hautagai izan zen 1969an. Azkenik, uko egin zion hautagaitzari, Salvador Allenderi bidea ireki eta hura izan zedin Unidad Popularreko lehendakari gaitz bakarra.

Sentimentalismoa eta erromantizismoa gailendu ziren haren lehen lanetan; gero, sakon idatzi zuen politikaz ere

Urteek aurrera egin ahala, gero eta ageriago dira Nerudaren figurak besteak beste genero ikuspegitik sortzen dituen dudak. Gainera, jokabide matxistak artistaren bizitzako pasarteetan zein obran dira bistakoak. Hainbat feministak adierazi dute Nerudak bere poemetan zabaltzen zituen mezuak sarri zirela misoginoak. Horren adibide, XV poema nabarmendu ohi da: «Laket zaitut bestetan ez bezala isila/ zaudelako bertan ez bazina bezala». Hailere, olerkietakoak bainoago, bizialdian eginikoak kritikatu zaizkio: alaba abandonatzea eta andre bat bortxatzea, besteak beste. Olerkariak berak aitortu zuen bortxatu izana, hil ondotik plazaratutako *Confieso que he vivido* (1974) memoria liburuan.

Pozoitua hil omen

Augusto Pinochetek Allende presidentearen kontrako estatu kolpea eman eta hamabi egunera zendu zen Neruda. Prostatako minbizia zuen, eta esan zen eritasun horren ondorioz hil zela. Ordea, bertsio hori gezurtatutzat eman dute aurten. Familiaren arabera, auzitegi medikuen ikerketak ondorioztatu du poeta *Clostridium botulinum* germenaren toxina injeztatuta ziotelako hil zela.


2011z geroztik dago piztuta Nerudaren heriotzaren kausari buruzko auzia. Nerudaren txofer Manuel Arayak Mexikoko Proceso aldizkarian adierazi zuen idazlea diktadura militarren aginduz pozoituta hil zela. «Santiagora berehala itzultzeko eskatu zigun, oso gaizki zegoelako. Esan zuenez, erdi lokarturik zegoelarik, mediku bat gelara sartu zitzaion, eta injezio bat jarri zion».

Etxe bat baino gehiago

Irati Majuelo

Etxeak, lorategiak, koltxoi-dendak. Gurasoak, bikotekideak, maitale ahaztuak. Inbidia, asperdura, beldurra. Lur horietan mugitzen da Esti Martinezen lehendabiziko narrazio liburua, *Animalia domestikoak*, eremu familiar, ohiko, egunerokoetan, baina ustekabeak, irrealari ate bat irekita utziz, badaezpada.

Zortzi ipuinek osatzen dute bilduma. Hasiera batean, testuinguru arruntetan kokatzen ditu pertsonaiak idazleak: alaba lagunaren etxetik jasotzera doan ama, alabaren hutsunea sumatzen duen bikote jubilatu, familiaren herrira oporretan doazen amasemeak edota Eguberrietako afa-



'Animalia domestikoak'

Idazlea: Esti Martínez.
Argitaletxea: Elkar.

Sekretuak



HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Eleberri honek Lima pertsonaiaren bigarren abentura ekarri digu. Lehenengoan, gogoratuko duzue, nerabe protagonistak bere burua eraldatzen ikusten du; ez soilik nerabe arruntek bizi dituzten aldaketa-garai aztoragarriak murgiltzen delako, baizik eta eguraldian eragiteko duen ahal misteriozkoak bidaia inizatiko sakon batera eramaten duen delako, zer eta Mari jainkosa beraren alaba dela deskubritu arte.

Oraingoan ere, *sekreto* da Limaryn bigarren eleberri honen gako-hitza, haren gainean eraikitzen da kontakizuna. Asmoa da irakurleak jakin ez dakien eta jakin nahikoa lukeen misterio horri heltzea izatea aurrera jotzeko eduki dezakeen motiboa. Estrategia hau bestelako motibazio batzuen kaltetan izan arren, pentsatuz zurrerenera ez dela beharrezkoa pertsonaien garapena edota kontakizunaren barneraikitzea aberatsago bat.



'Lima: Urrezko guraizeak'

Idazlea: Miren Gorrotxategi.
Argitaletxea: Elkar.

ri bat dira istorioen abiapuntuak, besteak beste. Alabaina, eguneroko joana zartatzen duten elementuak sartzen ditu Martinezek pixkanaka, eta horrela, hasiera batean bare zirudien egoera tentsionatzen du apurka-apurka, azkenerako bete-betean lehertu edo larridura airean utzi arte.

Izan ere, ipuin bakoitzak agerian esan gabeko zerbait dauka, esplizituki azaltzerik behar ez duen muina. Aldian-aldean, beraz, benetako afera esan gabe esateko, estrategia desberdinak darabiltza Martinezek, izan metafora bidez azaltzea isilpean da goen arazoa –igel arrautzak salbatzen dituen baina umerik ez duen bikotea–, izan sinbolismo markatua duten elementuak baliatzea –surik gabeko kea– edota errealitatearen eta irrealitatearen arteko mugak lausotzea –Milaren lorategiko eta buru barneko piztien karraskak–. Halaber, zehar-esan ugari daude ipuin bakoitzean, irakurleak aurkitu beharrek pistak balira bezala, eta

hala, pertsonaien izenek, ofizioek edota gustuek esangura bikoitza izaten dute sarri. Hortaz, narrazioek alegoria traza hartzen dute, oro har. Nabari da idazleak testuko elementu oro aurrez zehazki pentsatu duela, eta horrek laguntzen du ipuinak borobiltzen, eta nahiz eta guztietan ez erabat lortu, Martinezek saiakera ausarta egin duela igartzen da.

Idazleak giza-harremetan hurbilenetara jo du, eta sotilki baina trebeziak erakutsi ditu egunerokoan sortzen diren korapiloak eta abailuneak, baita asmatu ere bizipen horiek azaltzeko ukitu fantasiatsu eta irrealak erabiltzerakoan. Aipatzekoak dira, bereziki, *Munstro odola* ipuinean bel-durrezko kontakizunaren baliabideak erabili bai baina topiko estetiko buelta emateko gaitasuna, edota *Argazki bat* istorioan nola txirikordatzen dituen ahots eta perspektiba ugariak umore puntu batekin amaitzeko. Interresgarria izango da ikustea idazle nafarrak zer bide hartuko duen hurrengoan.

Basoko sekretuak



HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Naturalista izan nahi duten haur eta gazteei begirako jakintza liburua da, ilustrazio eta argazkiz ongi hornitua. Sarrerako azalpenak eta amaierako glosario eta abarrak aparte, liburua hiru atal nagusitan banatuta dago: lehenak lurzorua eta intsektuak ditu jardungai. Bigarren atalak, zuhaitzak eta zomorroak. Hirugarren eta luzeen den atalak, basa-hegazti eta ugaztunak.

Azalpenak, bai testu bidezkoak bai irudizkoak aberatsak dira, eta, orobat, naturalismoan murgildu nahi duen jendearentzako baliabide oso aproposa dela dirudi. Liburuaren sarreran adierazten den moduan (14-15 orr.), xede irakurlea hiru adin multzotan bereizten du egiturak, alegia: 7 urtera arte; 7 eta 12 artekoa; eta 12 eta 15 urte bitartekoa. Erabiltzaileak pentsa lezake liburuaren mamia ere adin multzo horien arabera orekaz banatuta dagoela. Baina ez da hala. Jarduera

gehienak 4 eta 5 urteko haurrentzat dira.

Dena den, azalpen gehienak gazte-nerabeentzako direnez, eta jarduerak adin hauei moldatzeko aukera dagoenez, esan liteke 10-15 urte bitarteko gazteek atera diezaioketela mamirik gehiena.



'Gazte naturalisten koaderno'

Idazlea eta ilustratzailea: Jonathan Rubinez.
Argitaletxea: Sua.